

## GOBERNU BATZARRA

2017 06 05

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren bostean, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria</b> <b>Nerea Letamendia Belloso</b> <b>Jokin Azkue Arrastoa</b> <b>Iñigo Alonso Sarasibar</b>	
<b>Beh. Beh. Idazkaria:</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Angel Uranga Txurruka</b>	2.-Nafarroa Etorbidea 6 eraikinean lokalaren zesioa: Tolomendi eta Tolosako Babarruen Kofradia.
<b>Kontuhartzaitza:</b>	3.- Sanjoanak. Egitaraua eta aurrekontua.
<b>Ainhoa Molinos Zubiaurre</b>	4.-Gipuzkoako bertsozale elkarte 2017ko hitzarmena eta dirulaguntza.
	5.- 29/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko maiatzaren 29an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### 2.- Nafarroa Etorbidea 6 eraikinean lokalaren zesioa: Tolomendi eta Tolosako Babarruen Kofradia.

**Tolomendik egindako erabilera kontratuaren proposamena.**

Tolosako Udala Tolosako Nafarroa etorbideko 3. pisuaren jabea da.

Tolomendik (CIF G20326237 duena), interesa du aipatu lokala erabiltzeko eta horretarako proposamena aurkeztu du.

Eskaerari buruz, idazkariak aldeko txostena egin du.

Hitzarmenaren ezaugarriak ikusi ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENEA**.- Onartzea aurkeztutako kontratuaren proposamena. Lagapenaren ezaugarri nagusiak hauek izango dira:

*\* “Prekariozko izaeran” uzten zaio, gehienez ere urte bateko iraupena izango du, kontratu hau sinatzen denetik kontaktzen hasita. Era berean, lokala libre utzi beharko da Tolosako Udalak hala eskatzen badu. Kontratua bukatu ondoren, luzatzeko aukera izango da, urtez urte, lau urte arte.*

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Idazkaritzari eta Tolomendiri.

.....

### **Tolosako Babarrun Kofradiak egindako erabilera kontratuaren proposamena.**

Tolosako Udala Tolosako Nafarroa etorbideko 3. pisuaren jabea da.

Tolosako Babarrun Kofradiak (CIF G20885547 duena), interesa du aipatu lokala erabiltzeko eta horretarako proposamena aurkeztu du.

Era berean, ihardueren Memoria aurkeztu du eskatutakoekin batera. Irabazi asmorik gabeko erregistroan ere inskribatuta dago.

Eskaerari buruz, idazkariak aldeko txostena egin du.

Hitzarmenaren ezaugarriak ikusi ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENEA**.- Onartzea aurkeztutako hitzarmenaren proposamena. Lagapenaren ezaugarri nagusiak hauek izango dira:

*\* “Prekariozko izaeran” uzten zaio, gehienez ere urte bateko iraupena izango du, kontratu hau sinatzen denetik kontaktzen hasita. Era berean, lokala libre utzi beharko da Tolosako Udalak hala eskatzen badu. Kontratua bukatu ondoren, luzatzeko aukera izango da, urtez urte, lau urte arte.*

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Idazkaritzari eta Tolosako Babarrun Kofradia elkarteari.

### **3.- Sanjoanak. Egitaraua eta aurrekontua.**

Kultur, Festak eta Gazteria batzarrak Sanjoanetako aurkeztu duen egitaraua eta aurrekontua ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Aurtengo Sanjoanak ospatzeko aurkeztutako egitaraua eta **115.383,00** €-ko aurrekontua onartzea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari.

### **4.- Gipuzkoako bertsozale elkartea 2017ko hitzarmena eta dirulaguntza.**

Tolosako Udalak San Joanetako bertso saioa eta ikasturte osoko bertso eskola diruz laguntzen ditu.

Aurtengo aurrekontuan, 6000 euro daude aurreikusita aipaturiko jarduera horiek diruz laguntzeko.

Kultura, Festa eta Gazteriaren Batzordeak egindako proposamenari jarraiki, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Goran aipaturiko jarduerak ( San Joanetako bertso saioa eta ikasturte osoko bertso eskola) aurrera eramateko 6000 euroko dirulaguntza ematea Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari.

**BIGARRENA**.- Aipaturiko dirulaguntza arautuko duen hitzarmena onartzea.

**HIRUGARRENA**.-Erabaki honen berri ematea Kontu-hartzaitzari, Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari eta Gipuzkoako Bertsozaleen Elkarteari.

**5.- 29/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **29/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **107.499,69** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** **29/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**